


# Anima zaitez, egin ezazu bat Eskulana

 Parte hartu, kontsumitu  
gutxiago, berrerabili gehiago

## Mozorro-maskara itzelak



Mozorro bat sortzeko, etxeko antzerki baterako, jolasteko eta horrekin ere ikasteko, anima zaitez animalia baten mozorro-maskara egitera.

1. Kartoiaren gainean, marraztu ezazu animalia baten silueta 15x20 cm-ko koadro batean. Hasieran arkatzez egin dezakezu baina ondoren errotulagailuz erreparatzea komenigarria da.
2. Moztu ezazu marraztutako silueta, begien zuloak egin itzazu eta alboetan zulo txiki bana egin gomak lotu ahal izateko.
3. Margotu eta apaindu ezazu maskara. Animalia baten jatorrizko koloreen antzera edo zure gustura egin dezakezu.
4. Azkenik, lotu itzazu gomak alboetako zuloetara eta.... Prest!!

## Soilik material hauek beharko dituzu

Errotulagailua      Kartoa

Guraizeak          2 Goma

Margoak (arkatz-margoak, zerak... nahi duzuna!)



Eta nahi baduzu, kola erabiliz maskarari apaingarri gehiago jarri ahal dizkiozu;  
sudurra, bekainak, belarriak...